

GALDUTAKO ETA BEREGANATUTAKO HERENTZIA

Natxituko Prudencio Astorekak kontatuta 1936an

Antzina Gernika-Lumo ondoan neba-arreba bi bizi ziren.

Egun batean neba Ameriketara joan zen, eta arreba bakarrik gelditu zen bere behi batekin.

Halako batean bere behia saltzea pentsatu zuen, eta honetarako Gernika-Lumoko azokara joan zen. Hemen hiru gizonek erosi zioten bere behi hori, hurrengo astelehenean ordainduko ziotela esanez.

Neskak auzoko andre batzuei esan zien:

- Behia saldu diet hain lekuteko hiru gizoni.

Andrek erietan egin zioten, esanez:

- Ez dakizu bada haiek lapurrak direnik? Ez duzu zuk harengandik dirurik hartuko.

Esan, eta egin. Hurrengo astelehena, eta ondorengoak igaro ziren, eta dirurik ez zen heltzen.

Halako batean Ameriketara joan zuten neba heldu zitzaion etxera, eta eurenean gertatukoa ikusirik ez zen batere ikaratu, eta arrebari esan zion:

- Ekarrizkidazu zure arropak, andre jantzi behar dut eta.

Honela neska jantzirik, ilunabarrean behi zuria zuen gizonen ateetara heldu zen.

Deitu eta gero etxeko nagusia irten zen. Pertsona onaren ospeari kasu eginez pozik hartu zuen. Andrerik barruen eduki ez arren, ondo hartuta izango zela esan zion. Bera pozik gelditu zen.

Afaldu ostean etxeko ugazaba egiten zuenak esan zuen:

- Lagunak, joan zaitezte lotara, eta gaur gauetz zaratarik, nahi beste edo honen antzeko gauzarik entzuten baduzue, ez irten, lasai, lasai egin lo.

Gero igo zuten logelara. Dena ei zen arma eta gauza. Baita bazegoen tornua zuen gauza bat ere. Zer esan edo zertarako zen esan ei zion lapurrari andre jantzita zegoenak.

- Barruan preso iñor eduki gura dugunean atxilotuta izateko da hau – esan zion lapurrak.

Neska zuhurak esaten dio orain:

- Sar zaitez, barrura, ikusteko.

Gustua ematearren, pozik lapurrak han doaz barrura.

Neskak eman zion tornuari buelta eta manibela irteteko moduan ipini zuen. Eta esate zion:

- Ez naiz ni neskatila, behi zuriaren ugazaba baino eta eman niri dirua.

Arrantza handiak egiten zituzten lapurrek, baina besteek, lo ondo egiteko agindua zutenez, ez zuten zirkinik egiten.

Azkenean manka-manka eginda itxi zuen bertan, eta poltsikoak diruz bete zuenean, etxeratu zen.

Hurrengo egunean beste lapur biak euren ugazaba guztiz zatituta aurkitu zuten. Eta berak:

- Hura, mutilak!- esaten zien- hura ez da izan neskatila txarra! Neskatila barik behi zuriaren jabea izan da, eta manka-manka eginda itxi nau.

Honetan mutilak arrebeari dirua eman eta esan zion:

- Ekarrizkidazuz medikuen arropak.

Ederto-ederto jantzi ei zen txapel eta guzti, eta joan zen mendian zehar lapurren etxe ondotik.

Lapur biek ugazaba mankata zuten, eta medikua hain urrian ikusirik, deiarrez hasi zitzaizkien esanez:

- Jauna, etorri mesedez hona.

- Ezin dut, -erantzun zion-, urrunera joan behar dut, eta presaz nabil.

Baina asko eta bihotzez erregutzen zuten, eta azkenean eurengana hurbildu zen.

Aztertzerakoan esaten ei zion:

- Zuk hemen min izango duzu, hemen ere bai (bera jotzen zuen lekuetan).

Igarri zion bada zein gaixo zuen. Eta, beno, esan zion orduan:

- Zuk herri bitako botikak behar dituzu, eta zure lagun bi honek joan daitezela arineketan bila.

Biak pozik joan ei ziren, eta medikua ere pozik gelditu ei zen.

Haiek urrunera heldu zirenean, berak esaten dio:

Benga, neure dirua. Ez naiz ni medikua, behi zuriaren ugazaba baino. Eta makilakadaz lepoa bihurtu zion.

Dirua hartuta pozik etxera heldu zen, hurrengo egunean beste azerikeriaren bat egiteko asmoz.

Biharamunean arrebari eskatu zizkion abadearen arropak. Berdin orduen ere lapurren etxe ondotik zehar joan zen.

Bera ikusirik, deiadarka hasi zitzaion:

- Etor zaitez gugana, jabea txarto dugu eta!.

Abadea, gaixoen logelara heldu zenean, esan zion:

- Hau txarto dago, hainbat arinen honek aitortu egin behar du eta zuek biok urrun-urrun joan behar duzue, han goian agertzen den mendiraino.

Lapur gizaraioak ezer susmatu barik, aldendu ziren arineketan.

Orduan besteak:

– Arin gero neuri daukazun diru guztia, ez naiz ni abadea eta, behi zuriaren jabea baino.

Bero-bero egin da utzi zuen.

Honek gauzak pasatuta gero lapur hori osatu egin zen. Eta berriro euren beharretan hasi ziren.

Egun batean mutilak Gernika-Lumoko kale baten ikusi zituen pobre-pobre.

Mutila etxera joan zen arin, arropa zahar-zaharrez eskeko janzteko.

Lapurrek jarlekuan zeuden, eta bera euren ondoan paseatzen hasi zen.

Lapurrok esaten ei zuten:

- Gaur gauez lapurretan egin behar dugu, ez daukagu zer janik eta: hain lekutako etxe handian neskameak bakar-bakarrik daude, eta hantxe sartuko gara teilatutik behera.

Eskekoa alboan ikusirik, euretariko batek esan zuen:

- Kontuz lagunak, ia horrek zer diogun entzuten badigu...

- Bai zera -erantzun zuen besteak- hori eskeko zahar hori ez da ezertarako ere.

Denborarik galdu gabe neskameengana joan zen eta esan zien:

- Gaur gauean lapurrak datoz hona, baina ez ikaratu, ondo ordaintzen badidazu, neuk bidaliko ditut etorri diren lekutik.

Etxekoak pozik gelditu ziren hain babesle ona eskuetan izateaz.

- Zeuk gura duzun guztia emango zaizu -erantzun zieten.

Arin eta pozik errementariarengana joan zen eta esan zion:

- Egidazu burdin zabal bat eta hauxe ipini: "SOLDADO MARIÑE", inoiz burdin horrekin jo ezkerro betiko marka izan dezaten.

Baita egin ere.

Burdin hau lagun zuela joan zen lapurren aurka eta sutan ipini zuen.

Gauerdian teilatu gainean zarata sentitu zen. Handik denbora laburrera, sokan behera zetorren bat.

Baina ia jaitsi zenean, mutilak harekin burdin gorri harekin eperdi-eperdian eman zion, eta arin igoarazi zion jaitsi zen lekutik.

Besteek hori ikusirik, beldurtu eta esateko diren gauza guztiak esan zituzten.

Hurrengo beste bat jaitsi zen. Bada alferrik. Berdin suertatu zitzaion.

Azken, ugazaba jaitsi zen. Baina txarrago: marka bi itsastu zizkion gizajoari.

Hirurek eraman zituzten ipurdian marka hauxe: SOLDADO MARIÑE:

Azkenean esan zuten:

- Hemen ezin egin dezakegu ezer, eta goazen beste leku batera.

Eskekua ere diruz beterik joan zen bere arrebarengana.

Handik denbora laburrera, mutil hau batel txiki baten jabe egin zen.

Behin kaian bidaiari irteteko zegoela, hiru lapurrak ikusi zituen.

Dotore-dotore jantzita, eurengana joan zen esanez:

- Lagunak Ameriketara joan gura baduzue neuk eramanago zaituztet arin eta merke.

Hau entzunik pozik gelditu ziren eta igo egin ziren ziren. Irten eta lasterrera portu eder batera heldu ziren. Portu hortan pertsonak saldu nahi erosi egiten ziren. Heldu zenerako, gizon batzuk etorri zitzaizkion, inor bazuen saltzeko eta.

- Bai erantzun zuen. Eta betiko lapurrak izendatu zituen.

Honek arrantza baten hasi ziren, esanez:

- Gu ez gara horrenak.

- Lagunok, isilik eta bakean aditu gaitezen -erantzun zuen honek. Neureak zarete edo ez laster ikusiko dugu. Zuek nire abizena SOLDADU MARIÑE daramazue atzean. Bestela kendu galtzok.

Hau eginik, denak bata besteen atzean ikusi zuten abizen hori. Eta ezpainak jan beharrean isil-isilik gelditu ziren. Lapurrok, salduta, mutila diruz bete-bete egin zen eta bere arrebatxoarengana etorri zen, gehiago bere ondotik ez aldenduteko asmotan.

Ordutik aurrera bakean, pozik eta zorionez beterik bizi ziren.

Harek ondo izan baziren, gu ere ondo izan gaitetzela.

Joxe Miel Barandiaran

Obras Completas Tomo II

Eusko-Folklore

Editorial La Gran Enciclopedia Vasca

Bilbao, 1973